

## Ohidura dantzatuen transmisioaz

Xabier Itzaina

Lehenik eskerrak antolatzaile, mahai kideer eta itzultzaileari nere aurkezpena euskeraz egiteko aukera emaita gatik.

Aitor dezadan berehala ene partetik ez naizela baitezpada gostian mahai inguruaren gaiarekin, ezta bere izenburu ipiztatzailer edo probokatiboarekin. Ikerle bezala hemengo ohidura dantzatuen historia dut miatu, eta ez baitezpada ohidura horien gaurko bilakaera. Herritar bezala entseatu naiz nere herrian, lagunekin, ohidura zonbeiten beiratzen edo arrasustatzen. Nik sorkuntza eta tradizioaren arteko lotura ez dut arazo bat bezala ikusten.

Horiek hola, eta zerbeit erraitekotan, bizpahiru ideia nahi nintuzke ekarri, izaitekotz ohiduraren funtzionamendu eta erabilpenetaz.

Lehendabizik, erran nezake ohidura aipu delarik, eduki bat beino gehiago transmisio modu bat dela izendatzen. Tradizionalak dauzkagun hunenbeste mekanismoen eta eragileen bidez transmititua izan den eduki bat. Gaur egun oraindik gauza bitxi batzuen egiteko erabiltzen dugun justifikazioa da ohidura hitz hori. Ardi larruekin hartzez beztitzea, prozesio batean dantzan aritzea, edo hiruzpalau orenez xutik kantatzea Erdi Aroko zaldun baten bizia. Elgarrekin izaiteko molde bat da. Estetika bat. Epe mugatu batean gaurko beharrorduetarik eskapatzeko modu bat da. Ihardokitze zerbeit, behar bada.

Ohidura dantzatuak besta eta ospakizun berezi batzuer eratxikiak dira. Besta horiek sedimentazio historiko batzuen ondorioak dira. Garai batetako, edo hobeki erran garai desberdinetako ordenu sinboliko eta instituzionalen orroitzapenak. Sasoineko ospakizun baten aipatzeko, Baxenabarren eta Lapurdi barnekaldean zaindu ditugun Besta Berrietan frango ezaugarri desberdinak nahasten dira. Eta bakotzak besta hortan nahi duena ikus liru. Edo frantses nazional-katolizismo organiko baten orroitzapena. Eliza eta armada biak elgarrekin. Edo Kontra Erreformako Elizaren ospea. Edo primaderako besta bat, nun Besta Berriak lotzen diren maiatzetik Jondonibaneraino doan zikloari, nun izadia, iguzkia, loreak eta berdurak diren ospatzen. Batzuk besta horren irakurketa foralista egin lezakete, ikusiz prozesioan dantzan ari diren soldadoak historikoki Iraultza aintzineko milizia probintzialen segida zuzenak direla. Besta hortan ikus ginezake ere garai batetako etxeen arteko harremanen erregulazio tresna bat. Baita gazteriak, erakunde bezala, bere buruaren plazaratzeko erabiltzen duen estakuru bat. Horiek oro dira Besta berriak, eta aise gehiago ere. Heletako berrikeriak hauxe zion 1905an Eskualduna kasetan, herri hartako Besta berrien aipatzearekin :

*“musikariak bilha ibili zeieztenekin, auzapeza, arrabita, zahar eta gazteak, arnoaren indarra, suissa, arratsaldeko joka partidak, auzo herrietako ikusliarrak, potrer jalitzalea, batzuen eta berteen girgileriak, jan edanak, proasnoa [prozesioa], churiak eta gorriak, Jinkoa, elizatiar nagi batzuen kopeta kargutan sartzeko, dantzak, odol chorta zombeit, khonduaren ez egitea, emazte batzuen sapa, iguzki zeruetakoa eta Saindua biak, Bichintcho, arratseko erretira, jandarmen eskasa, belharrak, (...)”*  
(Eskualduna, 1905.VII.7).

Iduri luke ihauteri eta astolasterretaz ari dela, baina Besta berrietaz da ari. Garai hartan, herri hartan Besta berriek hartzen zuten erranahiaz. Besta oso bat. Orduan alabainan, sinboloz hain betea den besta baten erranahi guzien argitzea zaila da, ikusiz ospakizunaren gibelean dagotzin ordenu intuituzionalak arrunt kanbiatu direla, Elizatik haste. Eta ariketa bera egin ginezake bertze hainbat ospakizunentzat.

Euskal Herrian Europako hainbat gizarte bezala, hunenbertze ohidura dantzatu beiratu ditugu formaren aldetik, baina erranahiak beti arraberrituz. Uste dut erranahien aniztasun horri esker dutela gaur arte iraun ospakizun horiek. Frangotan kanpotik ikusita ez da ulertzen aniztasun hori. Gaur egun dena nahi dugu argitu, azaldu, eta erranahi ilunekin baditugu nekeziak. Baina denen argitzeak mixterioa ken dezake. Pixka bat Eliza katolikoan Batikano II Kontzilioarekin gertatu zena. Latinetik tokiko hizkuntzetar pasatu ziren, liturgia gaurkotu, meza emalea jender buruz itzuli. François-André Isambert-ek barne sekularizazioa deitu zuen mugimendu hori. Sinesdun gehienak kontent, baina zonbeitentzat aldaketa horrek erritualaren indar sinbolikoa menderatu zuen. Holako zerbeit pasatzen da ohidura dantzatuekin naski. Badira erranahi gordeak, eta horrek dio *ere* bere indarra emaiten erritualari. Luhuson xaharrekin lehenagoko toberetaz mintzo nintzelarik, dantza eta auziaren erranahia argi eta garbi zaukaten, huxerra zendako hiltzen eta arrapizten zen ahatik ez. Baina hori ez bazen egiten, etzen tobera-kabalkada bezala *izendatzen* ahal besta hori. Sardegnako mendietan badituzte joaldun gisako pertsona batzuek, San Antoniz ateratzen direnak. Italiako adixkider entzuna diet gaur egun besta bizi-bizirik dela, delako joaldun horiek beti bezala ateratzen direla, baina milaka behazale badirela eta norbeitek mikrotik *esplikatzeko* dituela errituala eta sinboloak. Giroa aldatzen duela ez da dudarik. Besta horietan bada estetika bat, mixterio bat, batzutan olerki ttilika batzuek ere, baina horiek oro izigarri minberak dira, hauskorak eta ez dira beti erranahi goseari egokitzen.

Orduan, tradizioa eta sorkuntzaz ze erran? Erran nezake gisa batez ohidura arrakastatsua izan den sorkuntza bat dela, baina oroz gainetik tokian tokiko kodigo kulturaletan untsa kokatzen den berrikuntza bat. Frangotan sortzaileak nor izan diren ahantzia delarik da dantza edo kantua ohidurazkoa bilakatu, transmisio mekanismoek dutelarik gaina hartzen. Dantza jauziak noiz eta nola eraikiak izan diren xuxen ez dakigu, badakit Pantxikak barnatua duela gaia, baina jauzien jakitatea atxiki duten toki eta giza taldeetan sortzaileen orroitzapena ez da beiratu. Soinulariek ukan dukete garrantzi handia dantza horien eraikitzean, tokiko gazteriekin batera, prozesu luze baten ondorioz. Sortzaileak ez beitziren, hain segur, pertsona bakarti batzuek baizik eta gizarte bat, ber denboran berrikuntzari eta ohidurari irekia zena. Beha ze pasatu den Xiberun prinsipiozko punduekin XIX. mende undarrean. Berrikuntza historikoki hurbilago delarik, maisuaren izena oraindik gogoetan da, beha Faustin Bentaberry-k Garazin sortu duen dantza eskolari. Ohidura frangotan ahozkotatzen lotzen dugu. Eliza katolikoan “tradizioa” da Liburuetan aurkitzen ez diren eta mendez-mende transmititu diren erlijioaren ezaugarrien korpusa. Baina ikuspegi hori ere ez da arras egokia ohidura dantzatuen ulertzeko. Beha Iztueta baten garrantzia Gipuzkoako dantzetan, bai dantza maisu leinu baten sortzaile bezala, baina baita ere Europa mailan garrantzitsua izan den dantzeri buruzko liburuaren idazle bezala. Kasu hortan, kultura herrikoia eta sabantaren arteko muga puskatzen da.

Sorkuntza ohidura bilakatzen da erakundetzen delarik, adibidez urtero errepikatzen delarik, eta erakunde guziekin gertatzen den bezala, noizpait sortuak izan zirela ahanzten delarik. Thierry Truffaut-k kondatzen du Lapurdiko herri batean gazte bati galdegin ziola ihauteriak noizdanik egiten ziren herri hartan. Bertzeak ihardetsi: betidanik.

Bainan gertatzen da hain xuxen herri hortan Thierry Truffaut berak eta tokikoek zutela 30 bat urte lehenago berriz abiarazia aspaldidanik utzia eta ahantzia zen usaia. Betikotasunaren ilusioa. Bainan ohiduraren txertoak hartua zuelako seinale, gisa batez. Eta herri hortan ihauteriak funtzio berriak betetzen zituela: belaunaldien arteko harremanen indartzea, kartier xahar eta berrien kurritzea eta ezagutzea, euskeraren erabiltzea.

Batzutan historia erabiltzen dugu frogatzeko ohidura aspaldikoa dela. Adibidez, azken 40 urte hauetan galdu zen usaia baten berriz abiarazteko frogatzen dugu, artxibotan izertuz, bortz mendez egin zela, eta beraz 40 urteko etenaldia ez dela fisik. Aitor dezadan ene xokoan gisa hartako arrazoinamendua egin ginuela orain dela 25 urte kabalkadak berriz abiarazi ginintuelarik. Lehen urtean Itsasun, 1992an, dantzak beizik ez ginintuen eman. Antzerki-auzirik ez. Hain xuxen lehenagoko toberen orroitzapena, eta bereziki gauazkoena, oraindik gogoetan zelakotz. Plazatik jeustean entzun nintuen Luhusoar xahar batzu elgarri erraiten: “pollita zuan, bainan etzitian toberak”. Arrazoin zuten. Bainan guk bertze zerbeit ginuen abiarazi, lehenagoko formen parte bat erabiliz. Eta ondokoetan sartu ginuen antzerkia, eta erranahia gaurkotu naski.

Gero batzutan net tronpatzen gira. Orain duela zonbeit urte Michel Labeguerie-ren gazte denborako paperretan aurkitu nuen dantza baten izena eta airea, Labeguerie-k 1948an Haltsun bildu zuena. Izena: Epher dantza. Berehala piztu nuen ene baitan interpretazioen maxina: Epher dantza, hori hain segur xori izenak dauzkaten mutil dantza eta dantza jauzier lotua, frangotan errepikatzen den egitura dutena, beti puntu bat gehituz, xoxoaren kantua bezala, edo hain xuxen “Epher bat, biper bat” kantua bezala. Gehi xoriaren sinbolika. Ene zinema egin nuen, ohartzuz gainerat Labeguerie-ren informatzailea oraindik bizi zela, beti Haltsun. Joan nintzaion bisitan, eta ene amentsetako lukinka desegin zautan erranez delako dantza hori berak asmatua zuela bertze eskualdun batzuekin gerla denboran preso zaudelarik Alemanian. Sorkuntza bat beraz, bainan gero arrakesta haundirik ukan ez zuena, beraz ohidurarik sortu ez zuena.

Nahi nuke bururatu aipatuz “Amama” filmaren aktore batek elkarrizketa batean berriki erran duena. Kandido Uranga da, eta aita, etxeko nagusiaren errola egiten zuen hain xuxen transmisioaren gaia barnatzen duen filma hortan. Eta halaxe dio elkarrizketa hortan:

*“Baserrian gauza asko dago, Neolitikotik dator eta hori dena daukagu guk. Gaur egun ere oso modernoak izan arren, guk nahi ditugun gauzetan gara modernoak. Baina beste gauza batzuetan iñor baino tradizionalagoak izango gara. Horiek dira guk jartzen ditugun babesak gure izateko modua gure ideia batzuetara egokitzeke.”*

Uste dut laburbiltzen duela nola gabiltzan gaur egun, mundu ainitzen artean dilindan.

**Xabier Itzaina**